




EAEko afiliazioak beste marka historiko bat ezarri du

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Apirilean, EAEko afiliazioa %1,7 hazi zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, hainbat hila-betez jarraian milioi bat afiliaziotik gora kokatu da. Hain zuzen ere, azken hilabetean erregistro horrek 1.013.000 afiliazioak gainditu zituen, serie historiko osoan lortutako baliorik handiena eskuratu.

Langabezia erregistratua %1,4 hazi zen apirilean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak



Iturria: Lanbide.

Apirilean, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %1,4 igo zen. Horrela, berretsi egiten da martxoko gorakada, aurreko hilabeteetan izandako beheranzko joera hautsi baitzuen. Balio absolutuetan, langabeen kopurua ia 110.000ra iritsi zen, eta horietatik 63.200 emakumeak izan ziren.



Industriaren ekoizpena %2,0 handitu zen martxoan

Industriaren ekoizpena
Urte bakoitzeko martxoa. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, **EAEko industria produkzioa %2,0 hazi zen martxoan, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Bilakaera horren ondorioz, IPlak erregistrorik onena ezarri zuen martxo batean 2008tik, osagai guztiak gorantz zituela, kontsumo iraunkorreko ondasunak eta energia izan ezik.

EAEko ekonomiaren termometroa 91,4an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Apirilean, EAEko ekonomiaren termometroak nabarmen hobetu ziotuen azken hilabeteetako balioak eta 91,4an kokatu zen, hazkunde biziko eremutik gertu. Bilakaera hori kontsumo pribatuaren eta kontsumo publikoaren eskutik etorri zen, aurreko hilabeteetako indarrari eutsi baitzioten. Halaber, zerbitzuek hazkundera eta enplegua bultzatzen jarraitzen dute.